

ZERGAK IMPUESTOS

ZERTARAKO?

GIZARTE LEHIAKORRA, BERDINZALEA ETA SOLIDARIOA IZATEKO

GIZALEGARI ETA ZERGA-SISTEMARI BURUZKO HEZKUNTZA-MODULUA, DBHKO 4. MAILATIK AUERRERAKO IKASLEENTZAT.

Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako Plan Bateratuan, foru-aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak konpromiso-jarrerak sendotzeko apustua egiten dute; horretarako, zerbitzu publikoak eusten laguntzeko balio sozialari buruzko kontzientzia eragiten dute. Animatu eta parte hartu!

¿PARA QUÉ?

PARA UNA SOCIEDAD COMPETITIVA, IGUALITARIA Y SOLIDARIA

MÓDULO EDUCATIVO CÍVICO-TRIBUTARIO PARA ALUMNADO A PARTIR DE 4º CURSO DE LA ESO.

Dentro del Plan Conjunto de Lucha Contra el Fraude Fiscal, Diputaciones Forales y Gobierno Vasco apuestan por fortalecer actitudes de compromiso, concienciando sobre el valor social de contribuir al sostenimiento de los servicios públicos. ¡Animamos a participar!



OSASUNA
SALUD



HEZKUNTZA
EDUCACIÓN



ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK
EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES



EKONOMIAREN GARAPENA
DESARROLLO ECONÓMICO



AZPIEGITURAK
INFRAESTRUCTURAS




SEBURTASUNA
SEGURIDAD



KULTURA
CULTURA


Kontzientzia fiskal handiagorantz Euskadin

- Gaur egungo ogasun eredu nagusietan zergak dira sektore publikoaren finantziazio-iturri garrantzitsuena. Baita Euskadin ere.
- Ondorioz, herritarrek, erakundeek eta enpresek zergak ordaintzearen bidez egiten duten ekarpena funtsezkoa da ondasun publikoak hornitu ahal izateko (hezkuntza, osasuna, azpiegiturak, segurtasuna, etab.) eta, azken finean, gizartearen ongizate-maila duin bat bermatzeko.
- Iruzur fiskala –zergak ordaintzea ekiditeko asmoarekin arauak ez betetzea– elkartasunik gabeko ekintza egoista da, zuzeneko eta berehalako eragina baitu diru-sarrera publikoetan eta herri-administrazioen gastatzeko ahalmena murrizten duelako; ondorioz, politika publikoak finantzatzeko ahalmena eta ondasun publikoak hornitzeko aukerak gutxitzen ditu.
- Baditu beste eragin batzuk ere, bat, garrantzi handikoa, tributu-sistemen ekitate-printzipioa urratzea, eta horren ondorioz, sistema horiek izen ona galtzeko arriskua. Ez luke ezertarako balioko zerga-araudi zuzen eta bidezko bat diseinatzen saiatzeak, teoriarik ekitate horizontalaren (berdinen arteko tratu berdina) eta bertikalaren (desberdinen arteko tratu desberdina) oinarriak errespetatzen dituen eta gaitasun ekonomiko berdina dutenek zerga-karga berdina izango dutela aurreikusten duena, praktikan ekitate hori urratzen bada zergadun batzuek arauak ez betetzeagatik.
- Herritarrek gaztetatik, modu erraz baina didaktiko eta zehatzean, gure sare instituzionalaren funtzionamendua ikasten badute, hala nola antolakuntza, administrazioen artean eskumenak banatzeko modua eta finantziazio-sistema, aurrerapauso handia emango dugu heziketa zibiko-tributarioa lantzen hasteko.
- Hurrengo urratsa emateko, beharrezkoa da herritarrek eta enpresek administrazioei ematen dizkiegun baliabideen eta administrazioak gizarteari ondasun eta zerbitzu publiko gisa itzultzen dizkigun onuren artean dagoen harremanaren ikuspegi argi bat eskaintzea. Eta horren guztiaren helburua zergak ordaintzean Ogasun Publikoari egiten zaion ekarpenari buruz segur aski gizartean finkatuta dagoen ikuspegi ezkorra aldatzea da.
- Gure gazteriak hori ulertzea lortzen badugu, zergen zentzu soziala ulertzen badute, prest egongo dira iruzur fiskalaren ondorio kaltegarriak ulertzeko eta berezkoa izango dute horren aurkako jarrera.




Hacia una mayor conciencia fiscal en el País Vasco

- Los impuestos constituyen la principal fuente de financiación del sector público en los principales modelos de Hacienda moderna. También en Euskadi.
- En consecuencia, la contribución de la ciudadanía, organizaciones y empresas mediante el pago de los impuestos es fundamental para proveer bienes públicos (educación, sanidad, infraestructuras, seguridad, etc.), para, en definitiva, garantizar unos estándares suficientes de bienestar social.
- Cuando alguien incumple sus obligaciones tributarias y no paga los impuestos que le corresponden, está cometiendo un acto profundamente insolidario que tiene un efecto directo e inmediato en los ingresos públicos, reduciendo la capacidad de gasto de las Administraciones y, en consecuencia, minorando la capacidad de financiar las políticas públicas y la posibilidad de proveer bienes públicos.
- Tiene además otros efectos: uno muy importante, la quiebra del principio de equidad que introduce en los sistemas tributarios y, derivado de ella, el riesgo de desacreditación de estos sistemas. De poco serviría esforzarse en diseñar una normativa tributaria equitativa y justa, que en la teoría respete los principios de equidad horizontal (trato igual de los iguales) y vertical (trato distinto de quienes son distintos), y prevea que a igual capacidad económica se soporte la misma carga fiscal, si en la práctica, con motivo del incumplimiento por parte de algunas personas contribuyentes, se quiebra esa equidad.
- Un conocimiento temprano, sencillo pero didáctico y riguroso, por parte de la ciudadanía del funcionamiento de nuestro entramado institucional, su organización, la distribución de competencias entre administraciones y la forma en que éstas se financian debe ser el primer paso para empezar a trabajar en educación cívico-tributaria.
- Como siguiente paso, es necesario presentar una visión interrelacionada de, por un lado los recursos que ciudadanía y empresas aportamos a las Administraciones y, por otro, las utilidades que la Administración devuelve a la sociedad en forma de bienes y servicios sociales. Y el enfoque de todo ello ha de centrarse en modificar una percepción negativa y probablemente asentada en la sociedad sobre la contribución a la Hacienda Pública a través del pago de impuestos.
- Si conseguimos que nuestra juventud entienda esto, si comprende el sentido social de los impuestos, también estará preparada para entender los efectos perniciosos del fraude fiscal y tendrá una predisposición natural en su contra.



Euskadiko erakundeak iruzur fiskalaren aurka bat eginik

- Foru-aldundiak eta Eusko Jaurlaritza bat gatoz, eta iruzur fiskalaren aurkako borroka lehenetasunezko politika publikoen artean sartzea beharrezkotzat jotzen dugu. Gainera, iruzur fiskalari aurre egiteko funtsezkoa iruditzen zaigu prebentzio-estrategiak garatzea, gaztetatik, hezkuntza-ingurunean, kontzientzia fiskal handiagoa sustatzea oinarri hartuta.
- Horren adierazle da lau erakundeek parte hartzen dugun Iruzuraren aurkako Borrokaren Batzordeak heziketa zibiko-tributarioa sartu izana egin dituen urteko plan bateratuen lehenetasunezko ekintza-ildoen artean.
- Halaber, Iruzur Fiskalaren kontrako Borrokarako 2017ko Plan Bateratuaren prebentzio-ekintzen artean jasota dago Euskal Autonomia Erkidego osora zabaltzea hezkuntza-modulu bat, proiektuarekin bat egiten duten ikastetxe guztietan eman beharrekoa, era horretan EAEko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumean sartu ziren heziketa zibiko-tributarioko edukiak hezkuntza arautuan ematea bultzatzearen.
- Testuinguru horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta foru-aldundiek lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten 2017ko uztailaren 7an, EAEko ikastetxeetan ekonomiari eta zergei buruzko unitate didaktiko komuna ezarriko duen hezkuntza-programa bat garatzeko. Hartara, ikasleen kontzientzietan txikitatik kenduko zaie legitimotasuna zergetan iruzur egiteko jokabideei. Hitzarmen horren arabera, 2017ko urrian zerbitzu-kontratu bat formalizatu zen, ikastetxeei 2017-2018ko ikasturtean zehar unitate didaktiko komun hori ezartzeko orduan laguntza eta babesa emateko.
- Proiektua irauteko pentsatuta egoteak eta 2017-2018 ikasturteko esperientziaren balorazio onak (132 ikastetxe parte hartu zuten) erakunde sustatzaileoi heziketa-programa 2021 urtera arte, hiru ikasturte gehiago, luzatzera animatu gintuzten. Horretarako, hitzarmenaren luzatzea abian jarri zen 2018ko apirilean, eta, gero, zerbitzu-kontratu bat formalizatu zen unitate didaktiko komuna ezartzeko orduan laguntza eta babesa emateko hiru ikasturtetan (2018-2019, 2019-2020 eta 2020-2021). 2018-2019 ikasturteko balantzea ere positiboa izan da, eta behin betiko ikastetxeen izen-emate kopurua 165koa izan da.




ZERGAK IMPUESTOS



Euskadi, ayuntamiento, bien común

Las instituciones de Euskadi unidas contra el fraude fiscal

- Diputaciones Forales y Gobierno Vasco coincidimos en la necesidad de situar la lucha contra el fraude fiscal dentro de las políticas públicas prioritarias y para combatir el fraude fiscal nos parece fundamental desarrollar estrategias preventivas, basadas en la promoción de una mayor concienciación fiscal desde una edad temprana, en el entorno educativo.
- Prueba de ello, la Comisión de Lucha contra el Fraude del País Vasco, en la que participamos las cuatro instituciones, ha incluido la promoción de la educación cívico-tributaria entre las líneas de actuación prioritarias de los sucesivos planes conjuntos que ha elaborado anualmente.
- En concreto, entre las acciones preventivas del Plan Conjunto de Lucha contra el Fraude Fiscal 2017 se contempló la extensión al conjunto de la Comunidad Autónoma del Euskadi (CAE) de un módulo educativo a impartir en todos aquellos centros educativos que se adhiesen al proyecto, dando así un impulso a la impartición en la enseñanza reglada de los contenidos de educación cívico-tributaria que ya fueron incorporados en el currículo de Educación Básica del País Vasco.
- En este contexto, la Administración General de la CAE y las Diputaciones Forales suscribimos el 7 de julio de 2017 un convenio de colaboración para el desarrollo de un programa educativo consistente en la implantación de una unidad didáctica común sobre economía y fiscalidad en los centros escolares de la CAE, de modo que, desde una edad temprana, se deslegitimen en las conciencias del alumnado las conductas fiscalmente fraudulentas. Al amparo de este convenio, en octubre de 2017 se formalizó un contrato de servicios para la asistencia y apoyo a los centros escolares en la implantación de la referida unidad didáctica común durante el curso escolar 2017/2018.
- La vocación de continuidad del proyecto y la valoración satisfactoria de la experiencia del curso 2017/2018 (participación de 132 centros escolares) aconsejaron a las instituciones promotoras extender el programa educativo por un período de tres cursos escolares adicionales hasta 2021 y para ello se activó en abril de 2018 la prórroga del Convenio y se formalizó posteriormente un contrato de servicios para el apoyo en la implantación de la referida unidad didáctica común durante un periodo de tres cursos escolares (2018-2019, 2019-2020 y 2020-2021). El balance del curso 2018/2019 también ha sido positivo, con una participación de 165 centros escolares.



ZERGAK
IMPUESTOS




Euskadi, auzolana, bien común

Heziketa zibiko-tributarioaren proiektu bateratua

- Erakundearteko lankidetzeta-hitzarmena luzatzeko erabakiak arautu egiten ditu foru-aldundiek ekonomiaren eta zergen arloan garatu dituzten unitate didaktikoak 2018-2019ko, 2019-2020ko eta 2020-2021eko ikasturteetan zehar ezartzeko laguntza-zerbitzuak batera kontratatzeko oinarriak. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak laga zuen unitatearen oinarri komuna izango da abiapuntua. Nolanahi ere, ikasleen artean zergen gaineko kontzientzia handiagoa piztea eta, beraz, zerga-iruzurrari aurrea hartzea da xedea.
- Unitate didaktikoen edukira sartzeko, honako lotura hauek erabili daitezke:
<https://zergahezkuntza.araba.eus/eu/home>
<http://web.bizkaia.eus/eu/web/educacion-tributaria>
<http://ekonomiaetazergak.gipuzkoa.eus/eu>
Edo, bestela:
<http://euskadi.eus/informazioa/hezkuntza-ogasuna/web01-a2ogazer/eu/>
- Azken finean, programaren helburua honela defini genezake: «Kontzientzia fiskala areagotzera bideratutako hezkuntza-mailako ekintzak diseinatu, koordinatu eta gauzatzea, zerga-sistemaren gaiari heziketa etiko eta hiritarraren ikuspegitik ekinez»

Zer ikastetxe atxiki daiteke proiektura?

- Programara batzea borondatezkoa da. Aurreikuspenen arabera, datozen hiru ikasturteetan zergen gaineko hezkuntza-programan parte hartuko duten EAEko ikastetxeak, honako hauek izango dira:
2018-2019ko ikasturtea: 150 ikastetxe
2019-2020ko ikasturtea: 201 ikastetxe
2020-2021eko ikasturtea: 271 ikastetxe
- Proiektuari eusteko asmoa dago, eta finkatzea eta etorkizunean ahalik eta gehien zabaltzea da helburua



ZERGAK
IMPUESTOS



Euskadi, auzolana, bien común

El proyecto conjunto de educación cívico-tributaria

- El Acuerdo de prórroga del convenio de colaboración interinstitucional regula las bases para la contratación conjunta de servicios de apoyo a la implantación durante los cursos escolares 2018/2019, 2019/2020 y 2020/2021, de las unidades didácticas sobre economía y fiscalidad que han desarrollado las Diputaciones Forales, sobre la base común de la unidad que fue cedida por la Diputación Foral de Gipuzkoa, con el fin de promover una mayor concienciación fiscal entre el colectivo estudiantil y, por tanto, prevenir el fraude fiscal.
- Al contenido de las unidades didácticas se puede acceder a través de los siguientes enlaces:
<https://zergahezkuntza.araba.eus/home>
<http://web.bizkaia.eus/es/web/educacion-tributaria>
<http://ekonomiaetazergak.gipuzkoa.eus/es>
O alternativamente:
<http://www.euskadi.eus/principales-tributos/-/informacion/educacion-tributaria/>
- En definitiva el objetivo del programa podría definirse como “Diseñar, coordinar y ejecutar acciones educativas orientadas a elevar la conciencia fiscal, abordando la temática tributaria desde la perspectiva de la formación ética y ciudadana.”

¿Qué centros escolares pueden adherirse al proyecto?

- La adhesión es voluntaria. Se ha estimado la siguiente evolución del número de centros escolares de Euskadi que participarán en el programa de educación tributaria durante los próximos tres cursos:
Curso escolar 2018/2019: 150 centros escolares
Curso escolar 2019/2020: 201 centros escolares
Curso escolar 2020/2021: 271 centros escolares
- El proyecto tiene vocación de continuidad y el objetivo es que se consolide y que alcance en el futuro el mayor grado de cobertura posible.

ZERGAK
IMPUESTOS



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Atxikitze-prozedura

- 2019-2020ko ikasturtean programan parte hartzeko interesa duten ikastetxeek, harekin bat egiteko, inprimaki bat bete behar dute. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren webgunean dute inprimakia:

<http://www.euskadi.eus/principales-tributos/-/informazioa/hezkuntza-ogasuna>

- Bestela, ikastetxe horiek dagokien Hezkuntza Elkartera jo dezakete, hark jakinarazi diezazkion Eusko Jaurlaritzari bere hezkuntza-sareko ikastetxeen izen-emateak.
- Bat egiteko prozedurarekin lotutako edozein kontsulta edo zalantza Eusko Jaurlaritzako Zerga Administrazioako Zuzendaritzan argitu daiteke:

Harremanetarako telefono-zenbakia: 945 01 89 46

Helb. elek.: hac-tributos@euskadi.eus


Nori zuzenduta dago unitate didaktikoa?

- Hezkuntza-programa DBHko 4. mailako, erdi-mailako lanbide-heziketako eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetakoko ikasleei zuzenduta dago, ikastetxe bakoitzaren hautuaren arabera.

Zer gaitasun, jakintza edo balio irakatsi nahi zaizkie ikasleei?

Ikasitakoaren ondorioz, ikasleek gaitasun batzuk eskuratu ahal izango dituzte –guztiak ere eskainitako prestakuntza-ibilbideen arabera egokituta–, hala zeharkako gaitasunak (teknologia berrien erabilera, talde-lana, komunikatzeko gaitasuna) nola ekonomiaren eta zerga-sistemaren gaineko gaitasun espezifikoak. Bestek beste:

- Sektore publikoak eskaintzen dituen zerbitzu nagusiak.
- Aurrekontuaren erabilera eta banaketa sektore publikoan.
- Euskal Autonomia Erkidegoko arkitektura instituzionala.
- Ekonomia Itunaren oinarritzko ezagutzak eta berezitasunak.
- Zerga-sistema forala. Zerga nagusien egituraren ezagutza.
- Zergen bidez bildutako funts publikoen banaketari buruzko jakintza handiagoa; bereziki, zergen eta gizarte-zerbitzuen arteko harremana.
- Zerga-iruzurra. Zerbitzu publikoen gaineko eragina. Zerga-iruzurraren aurkako borroka.



ZERGAK
IMPUESTOS



Bizkaia



Euskadi, auzolana, bien común

Procedimiento de adhesión

- Los centros escolares interesados en **participar en el programa en el curso 2019/2020** deben formalizar su adhesión cumplimentando el formulario de inscripción al que se accede a través de la siguiente web del Departamento de Hacienda y Economía del Gobierno Vasco:
<http://www.euskadi.eus/principales-tributos/-/informacion/educacion-tributaria/>
- Alternativamente, los centros escolares pueden dirigirse a la Asociación Educativa a la que pertenecen para que sea ésta la que canalice la comunicación al Gobierno Vasco de las inscripciones de centros de su red educativa.
- Cualquier consulta o duda relacionada con el procedimiento de adhesión puede resolverse a través de la Dirección de Administración Tributaria del Gobierno Vasco:
Tfno. de contacto: 945 01 89 46
e-mail: hac-tributos@euskadi.eus


¿Quiénes son las personas destinatarias de la unidad didáctica?

- El alumnado destinatario del programa educativo será el perteneciente a 4º curso de la ESO, FP de Grado Medio, 1º de Bachillerato y 2º de Bachillerato, a elección de cada centro educativo.

¿Qué capacidades, conocimientos o valores se pretende que adquiera el alumnado?

Como resultado del aprendizaje, el alumnado deberá ser capaz de adquirir competencias –adaptadas en función de los distintos itinerarios formativos ofertados– tanto transversales (uso de nuevas tecnologías, trabajo en equipo, capacidad de comunicación) como específicas en economía y fiscalidad, a saber:

- Principales servicios que ofrece el sector público.
- Utilización y reparto del presupuesto en el sector público.
- Arquitectura institucional del País Vasco.
- Conocimientos básicos y peculiaridades del Concierto Económico.
- Examen del sistema fiscal foral y conocimiento de la estructura de los principales impuestos.
- Aumento del conocimiento de la distribución de los fondos públicos recaudados a través de los tributos; en particular, relación entre tributos y servicios sociales.
- El fraude fiscal. Su incidencia en los servicios públicos. La lucha contra el fraude fiscal.



Unitate didaktikoa ezartzeko modua. Zer metodologiarekin?

- Aipatutako unitate didaktikoa plantan ezartzeko erabili beharreko metodologiak helburu nagusizat du ikasleak zerga-iruzurraren ondorio kaltegarriez eta horrek sortzen duen jarrera antisozialaz kontzientziatzea, eta, horretarako, honako hauek sustatuko ditu: alde batetik, taldekako eta lankidetzazko ikaskuntza-jardunak, ikasleei euskal sektore publikoaren ekonomiari eta zerga-sistemari buruzko jakintzak helarazteko; eta, bestetik, teknologia berrien erabilera sustatzen duten ikaskuntza-jardun interaktibo eta esperimentalak
- Metodologia malgua izango da, eta ikastetxeek dituzten beharrian eta helburuetara eta ikasleen gaitasunetara egokituko da. Ikastetxeei hainbat prestakuntza-ibilbide eskainiko zaizkie, era desberdinean zehaztuta eta mailakatuta, ibilbideotan eskainiko dituzten orduak, landuko dituzten edukien norainokoa, egin beharreko praktiken nolakotasuna eta haien eskura jarritako tresna didaktikoen aniztasuna kontuan hartuta. Nolanahi ere, zergen gaineko hezkuntza-programa hau emateko, oinarrikoena den prestakuntza-ibilbidean, gutxienez 4 ordu beharko dira, eta, ibilbide aurreratuan, gehienez ere 20 ordu.
- Badakigunez ikasturteak mugak dauzkala eduki berriak sartzeko, programa malgua dela azpimarratu beharra dago. Hala, hainbat prestakuntza-ibilbideren artean aukeratu ahalko da, ikastetxe bakoitzaren inguruabarren eta lehentasunen arabera. Hartara, unitate didaktikoa emateko gaitasunari buruz zalantzak dituzten ikastetxeek ere parte hartu ahalko dute, ahalegin txikiagoarekin, kontratatutako kanpo-zerbitzuen laguntza eta babesari esker. Izan ere, zerbitzu horiek aholkuak emango dizkiete programa martxan dagoen aldi guztian, bai hura planifikatzeko, bai betearazteko.
- Multimediako tresnak oso lagungarri izango dira, edukiak erraz eta modu erakargarrian irits daitezten ikasleengana, eta, hala, parte-hartze interaktiboa sustatuko da, kontzeptuen zehaztasunari kalte egin gabe.

Nork irakatsiko du unitate didaktikoa?

- Kontratatutako laguntza- eta babes-zerbitzua osatzen duen taldeak ikastetxeetan bertan emango du lehenengo ikastordua, eta, uneoro laguntzeko prest egongo da. Hurrengo saioak DBHko 4. mailako, erdi-mailako lanbide-heziketako edo batxilergoko 1. eta 2. mailako irakasleek gidatuko dituzte plataforma digitalean izango dituzten multimediako edukiak baliatuta.



ZERGAK IMPUESTOS

Euskadi, ayuntamiento, bien común.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Bizkaia

Euskadi, ayuntamiento, bien común.

GOBIERNO VASCO

¿Cómo se implementará la unidad didáctica? ¿Con qué metodología?

- La metodología a emplear en la implementación de dicha unidad didáctica tiene como objetivo principal la concienciación del alumnado sobre los efectos perniciosos del fraude fiscal y el comportamiento antisocial que representa y, para ello, promoverá, por un lado, prácticas de aprendizaje cooperativas y colaborativas que permitan acercar al alumnado los conocimientos relativos a la economía y fiscalidad del sector público vasco; por otro, prácticas de aprendizaje interactivo y experimental que fomenten el uso de las nuevas tecnologías.
- Será una metodología flexible, que se adapte a las diferentes necesidades y objetivos de los centros escolares y a las capacidades del alumnado. Se ofertarán a los centros escolares varios itinerarios formativos, que estarán definidos y graduados de manera diferencial en función de la dedicación horaria, la mayor o menor extensión de los contenidos impartidos, la tipología de las prácticas a realizar y la variedad de herramientas didácticas puestas a su disposición. En todo caso, la dedicación horaria prevista para la impartición de este programa de educación tributaria en el itinerario formativo más básico no será inferior a 4 horas y será de un máximo de 20 horas en el itinerario avanzado.
- Conscientes de las limitaciones del curso para incorporar nuevos contenidos, se quiere subrayar la flexibilidad del programa, permitiendo elegir entre varios itinerarios formativos, en función de las circunstancias y preferencias de cada centro. De este modo, incluso los centros que tengan dudas sobre su capacidad para impartir la unidad didáctica, lo podrán hacer con un esfuerzo relativamente menor y siempre con la asistencia y apoyo de los servicios externos contratados que prestarán en todo momento asesoramiento durante la vigencia del programa, tanto para su planificación como durante su ejecución.
- Se da importancia al apoyo en herramientas multimedia que, consigan transmitir los contenidos de manera ágil y atractiva para el alumnado, favoreciendo su participación interactiva, todo ello sin menoscabo del rigor conceptual.

¿Quién impartirá la unidad didáctica?

- La primera hora de la unidad didáctica será impartida en los centros escolares adheridos al programa por el equipo que conforma los servicios de asistencia y apoyo contratados, que tendrá máxima disponibilidad. Las siguientes sesiones serán guiadas por el propio profesorado de 4º curso de la ESO, FP de Grado medio, 1º de Bachillerato y 2º de Bachillerato, apoyándose en los contenidos multimedia disponibles en la plataforma digital puesta a su disposición.

ZERGAK
IMPUESTOS




Euskadi, auzolana, bien común

ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO


Zer babes jasoko dute ikastetxeek?

- Programak irauten duen bitartean, kontratatutako kanpoko zerbitzuek aholkularitza, laguntza eta babes pedagogikoa eskainiko diete irakasleei, bai programaren plangintza egin eta fase bakoitzean erabili daitezkeen prozedurak definitzean, bai programa gauzatzean, eta ikasgaia irakasterakoan sortu daitezkeen galdera eta gertakari guztien ardura hartuko dute, metodologia eta erabili beharreko euskarria definituz.
- Era berean, irakasleentzat prestakuntza-ekintza espezifikoak proposatuko dituzte.
- Kontratatutako kanpo-zerbitzuak, gainera, eskura egongo dira prestakuntza-ekintzak aurrez aurre egin daitezzen



¿Con qué apoyos contarán los centros escolares?

- Los servicios externos contratados prestarán asesoramiento, asistencia y apoyo pedagógico al profesorado durante la vigencia del programa, tanto para la planificación de dicho programa y la definición de los procedimientos aplicables en cada fase, como durante su ejecución, atendiendo a todas las consultas e incidencias que pudieran darse durante la impartición de la materia, con definición de metodología y soporte a utilizar.
- Propondrán asimismo acciones formativas específicas para el profesorado.
- Los servicios externos contratados tendrán además disponibilidad para que las acciones formativas se desarrollen con carácter presencial.



Contenido y estructura de la unidad didáctica

- Al contenido de las unidades didácticas se puede acceder a través de los siguientes enlaces:

<https://zergahezkuntza.araba.eus/home>

<http://web.bizkaia.eus/es/web/educacion-tributaria>

<http://ekonomiaetazergak.gipuzkoa.eus/es>


O alternativamente:

<http://www.euskadi.eus/principales-tributos/-/informacion/educacion-tributaria/>

- Cada centro escolar dispondrá además de material didáctico específico diseñado a partir de las respectivas unidades didácticas desarrolladas por cada Diputación Foral. Dicho material ha obtenido el reconocimiento de idoneidad del Departamento de Educación tras pasar el correspondiente análisis lingüístico y didáctico.

The collage features several educational resources:

- A screenshot of the Bizkaia website's 'Economía e impuestos en la sociedad del bienestar' page, which includes a 'Inicio' section with objectives and a main article titled 'Poco a poco, paso a paso, hacia una mayor concienciación sobre el sector público'.
- The header of a document titled 'IMPUESTOS ¿PAR?' (Taxes, is it fair?), identified as a didactic unit for 4th grade students.
- A photograph of a classroom where students are actively participating, with many raising their hands.
- A small inset showing a group of children with their hands stacked together in a circle.



Unitate didaktikoaren edukiak eta egitura

- Unitate didaktikoen edukira sartzeko, honako lotura hauek erabil daitezke:

<https://zergahezkuntza.araba.eus/eu/home>

<http://web.bizkaia.eus/eu/web/educacion-tributaria>

<http://ekonomiaetazergak.gipuzkoa.eus/eu>

Edo, bestela:

<http://www.euskadi.eus/principales-tributos/-/informazioa/hezkuntza-ogasuna>

- Halaber, ikastetxe bakoitzak material didaktiko espezifikoak izango du, foru-aldundi bakoitzak garatutako unitate didaktikoen arabera diseinatuta. Ikasmaterial horrek Hezkuntza Sailaren onspena du, dagozkion hizkuntza-azterketa eta didaktika-azterketa gaititu ondoren.

The image shows a collage of three web pages related to tax education in the Basque Country. The top page is from 'Ekonomia eta zergak ongizate gizartearen' (Economy and taxes for social well-being), featuring an article titled 'Sektore publikoari buruzko kontzientzia pizteko kimua' (Cinema to raise awareness about the public sector). The middle page is from 'Bizkaia' (Biscaya), with a header 'ZERGAK ZERTAI' and a large image of children's hands. The bottom page is from 'araba.eus' (Basque Country), also featuring the 'ZERGAK ZERTAI' header and a classroom scene with children raising their hands. The bottom page includes a section titled 'Sektore publikoari buruzko kontzientzia pizteko kimua' with a sub-header 'Unitate didaktikoen helburua' (Objectives of the didactic unit).

ZERGAK IMPUESTOS

